

Zatoz naturara!

# Naturally!



**Barrualdeko herriak**

**Leku interesgarriak**

**Naturan zeharreko ibilaldiak**

**Tradizioak**

**Gastronomia**

**Informazio praktikoa**





## Gernika



Foru-herri hau mundu guztian ezaguna den ikonoa da, Espainiako Gerra Zibileko zentzugabekeriagatik eta ankertasunagatik, eta Picassoren obrari esker, gaur egun, bakearen sinboloa da. **Batzarretxea** eta arbola famatua, euskal herriaren eskubide eta askatasunen estandartea, hartzen ditu. Era berean, merezi du **Europako Herrien Parkea**, **Bakearen Museoa**, **Euskal Herria Museoa** eta **Santa Maria eliza** bisitatzea.

Halaber, piper eta indaba ospetsuen sorlekua da. Herri honek urteko astelehen guztietan merkatu bat hartzen du, baita **“Gernikako azken astelehen”eko nekazaritza-azoka handia ere** (urriaren azken astelehenean).



## Durango



**Durango** oso ingurune natural ederrean kokaturiko herria da eta aire zabaleko jardueren zaleentzako aukerez beteta dago. Hirigunean, elementu eta eraikin enblematikoak aurkitu ahalko dituzue, adibidez, **Kurutziagako gurutzea**, **Uribarriko Andra Mariaren basilika**, jauregi dotoreak eta **“Memoriarako espazioa”**, herriak 1937an pairatu zuen bonbardaketa gogorarazteko altxatutako monumentua. Durangoko **Euskal Liburu eta Disko Azoka** abenduan egiten da eta Euskadiko kultura-azoka garrantzitsuena da.

Natu-  
rally!

# Barrualdeko herriak



Elorrio

*i*

Herri hau bere historia-ondarearen balio altuagatik gailentzen da: jauregiak eta harri trinkoaz eta harlanduz egindako oinetxeak, **Santa Ana monasterioa**, **Sortzez Garbiaren basilika**, **On Telloren atea**, **Tola jauregia** eta **Erdi Aroko harresiaren** hondarrak. Handik hurbil **Argiñetako nekropolia dago**, zeinak interes handiko estelen eta hilobien Erdi Aroko multzoa baitu.



Urduña

*i*

**Hiri**-titulua daukan Bizkaiko toki bakarra da. Antzina Gaztelarekiko merkataritza- eta aduana-enklabe garrantzitsua izan zen eta ondare zibil eta erlijioso esanguratsua dauka. **Foru Plaza** abiapuntu egokia da **Gorobel** mendilerrotik ibilbideak egiteko, oinez zein bizikletaz.



## Orozko




Orozko **Gorbeia**ko natura-parkerako sarbidea da. Merezi du kaleetan zehar ibiltzea eta **Olarteko San Bartolome eliza**, **Anuntzibai zubia** eta **Legorburu jauretxea**, **Museo Etnografikoaren** egoitza, aurkitzea.



## Balmaseda



Oso **alde historiko** ederra dauka, non **Zubi Zaharra** gailentzen den, harresiaren lekukotzarik zaharrena. **Balmasedako Aste Santuan** errealismoz betetako Pasio Biziduna berregiten da eta 50.000 lagun baino gehiago erakartzen ditu. **Boinas La Encartada Museoak**, txapela tradizionalaren ekoizpenean espezializatutako antzinako fabrikak, industria-iraultzaren bukaerara eramango gaitu. **“Putxerak”** ezagutzea interesatuko zaizue; lapiko horietan, Bilbo-La Robla lineako trenbide-langileek indabaerregosi tradizionala prestatzen zuten, sakramentu guztiekin (txerri-saiheskia, urdaia, txorizoa, odolkia...), makinetako ikatzaren epelean.



## Markina-Xemein



Herri hau iparraldeko Donejakue bidean kokaturik dago. Horko jauregi eta komentu errenazentistek eta barrokoek iragan miresgarria uzten dute agerian. **Arretxinagako San Migel ermita** bitxia da, hexagono erregularraren forma dauka-eta, sei aldeko teilatu piramidalarekin. **Xemeingo eliza**, ziurrenik, Bizkaiko handiena da.

Natu-  
rally!

# Leku interesgarriak

Leku interesgarri asko aurkitu ahalko dituzue Bizkaiko barrualdean zehar ibilbidea eginez. Hemen, gure ustez ezinbestekoak diren eta biztanleguneetan ez daudenez berariaz topatu beharko dituzuen horiek bakarrik aipatu ditugu. Merezi dute.



## Pozalagua

*i*

**Pozalaguako kobazuloak Enkarterrin** daude eta **Espainiako txoko onenaren** saria jaso zuten 2013an, estalaktita eszentrikoen planeta osoko metaketarik handiena hartzen dutelako. Haitzuloko ibilbidean, pasabide metaliko batek “Versailles gelara” darama, meatzaritzaz jardueraren ondorioz lehortutako aintzira bat zeharkatuz. Amaieran, ganga handiaren forma duen begiratokitik kobaren edertasuna bete-betean begiets daiteke.



## Abellaneda

*i*

**Abellanedako Juntetxea Sopusertan dago** eta eskualdeko kontzejuek gai orokorreari buruzko erabakiak hartzen zituzten bilera-tokia izan zen XIV. mendetik XIX. mendera arte. Gaur, herri horiek Bizkaiko Jaurerriarekin elkartzean zeuzkaten pribilegio eta askatasunen multzoaren sinbolo hori **Enkarterrietako Museoren** egoitza da.

Natu-  
rally!

# Leku interesgarriak



## Loizaga dorrea

*i*

**Galdamesen, Loizaga Dorreak**, zeinak Erdi Aroko jatorria baitu, mundu osoan ezaguna den **auto zahar eta klasikoen museo bat** hartzen du. **Rolls-Royce** autoen bilduma pribatu berezia hartzen du barne, den-denak egoera ezin hobean.

Hortik ez oso urrun **Sopuerta Abentura** dago, familia guztiak zuhaitzen artean goatzeko abentura-parkea. Hor, hamar zirkuitu aurkituko ditugu, horietako hiru tirolinekin, zuhaitzetan egiteko askotariko kirol-jarduerekin eta zenbait zailtasun-mailarekin, metro 1 eta 21 metro bitarteko garaieran.



## ARENATZarte

*i*

**Gueñeseko** Arenatza parkean **ARENATZarte** dago. Natura eta artea nahasten dituen **lorategi botanikoa** da eta zuhaitz bakanak eta eskultura abangoardistak hartzen ditu. Familian bazatozte, bisitatu ezazue **Bizkaia Park Abentura** (aldi baterako itxita dago), oztopo-zirkuituak, puzgarriak eta rokodromoa baitauzka.



## El Pobal burdinola

*i*

**Enkarterritik** igarotzean, interesgarria da **El Pobal** multzoa bisitatzea. XIII. eta XIV. mendeetako burdinola hidrauliko tipikoa da. XVIII. mendean berritu egin zuten eta gaur egun ezagutzen dugun moduan geratu zen. Burdinola bera, olagizonak bizi ziren jauregi-etxea, ogi-labetxo bat eta irin-errotak bat barne hartzen dituen multzo bisitagarria da.



## La Encartada

*i*

**Balmasedatik** hurbil, antzinako museo-fabrika honetan, **txapelak** egiteko egitura industrial guztia ikus daiteke. Garai hartako gizartearen isla da. Dendan produktu tipiko hori eskuratu ahalko duzu, edozein koloretan. Nahitaezko bisita.



## Zenarruza

*i*

**Bolibarrerako bidean, Ziortzako kolegiata** edo **Zenarruzako monasterioa** dago. **Iparraldeko Donejakue bideko** monumentu historiko eta artistiko garrantzitsua da, non estilo platereskoko klaustroa nabarmentzen den, Bizkaian paregabea baita. Euskadiko kultura-ondarearen katalogoan sartuta dago. Urte osoan, Eguberri egunean izan ezik, zabalik dagoen ostatu bat dauka.



### Urkiola

*i*

**Urkiolako natura-parkean**, mendizaletasunean, eskaladan zein rappelean aritzeko edo mendi-ibiliak egiteko aukera dago. Mendi-magaletako batean **Antonio Santuen Santutegia** dago (Abadea eta Paduakoa). Haren aurrean dagoen harria, herri-sinesmenaren arabera, meteoritoa da eta bertute berezia dauka: haren inguruan bira eginez gero, laster aurkituko duzu bikotekidea. Zenbait ostatuk, aterpek eta jatetxek osatzen dute multzoa.



### Armañón

*i*

Mendigune honek Kantabriarekiko muga markatzen du. **Armañóngo** gailurra nabarmentzen da, 854 metrotara. 200 kobazulok eta leizek baino gehiagok zeharkatzen dute ingurunea; horien artean **Pozalaguako kobazuloa** gailentzen da.




### Gorbeia

*i*

**Gorbeia**ko natura-parkea Euskadiko natura-erreserba zabalena da. Hor dago izen bereko tontorra, **Gorbeia**; 1.842 m garai denez, Bizkaiko altuena da, eta haren gailurrean 18 metro garai den gurutze bat nabarmentzen da, parkearen sinboloa.





## Nerbioiko jauzia

*i*

300 metro inguruko ur-jauzia da, zaldi-buztan itxurakoa. **Urduñako mendatea** igo behar da. Han aparkatu eta gero, baso-pistatik oinez jarraitu eta **Santiago iturria-Nerbioiko jauzia** ibilbidea egin dezakezue. Garrantzitsua: ur-jauzia ikusteko, euri ugariko garaietan edo urtzealdietan joatea gomendatzen dizugu.



## Burdin-hesia

*i*


Espainiako Gerra Zibilean **Bilbo**, industrialdea eta portua **defendatzeko** egin ziren gotorlekuen hondarrei jarraitzen dien ibilbidea da. Bunkerrak, zaintza-postuak eta metrailadore-habiak dira.



## Donejakue bidea

*i*

Bizkaia eta horko hiriburua **kostaldeko** edo **iparraldeko Donejakue bidean** daude; erromesaldi-bide zaharrenetariko bat da eta, marinel-udalerrietatik eta barrualdeko bideetatik igarotzeaz gain, Bilboko hiri-eremua ere zeharkatzen du.



## Karpin Abentura

*i*

**Animalia basatien harrera-zentroa da**; haren bisitak aro jurasikorantz eramango gaitu, dinosauroen urratsei jarraituz. Aisia eta turismo arduratsuetarako tokia da, familia guztiarentzat; bertan, ingurune naturalean ondo jokatzeko ikasi behar dugu, eta jasagarritasunarekiko konpromisoa hartu.



## Basondo


*i*

Urdaibaiko ingurunean 60.000 m<sup>2</sup>-ko parke hau dago, basa-fauna mehatxatuarentzako aterpe eskaintzen duena. Bisita interesgarria familia guztiarentzat.

# Naturan zeharreko ibilaldiak Bilboko Eraztun Berdea

## HIRIKO PARKEAK

- |                          |                     |
|--------------------------|---------------------|
| ① LARREAGOBURU           | ⑩ CASILDA ITURRIZAR |
| ② EUROPA                 | ⑪ ABANDOIBARRA      |
| ③ IRUMINETA              | ⑫ MIRIBILLA         |
| ④ BEHARTSUEN SENIDETXOEN | ⑬ ABUSU             |
| ⑤ ETXEBARRIA             | ⑭ IRALA ESKURTZE    |
| ⑥ BOTIKAZAR              | ⑮ ERREKALDE         |
| ⑦ SARRIKO                | ⑯ ERREKALDE PLZ     |
| ⑧ ZORROTZA               | ⑰ AMETZOLA          |
| ⑨ MISERICORDIA           | ⑱ KOBETA            |





## Euskal pilota

*i*

Euskal nortasunez betetako kirol ezagun hau mundu osora esportatu da jada. Zenbait modalitate daude, adibidez, **esku-pilota**, **zesta-punta**, **erremontea**, **pala**... Herri gehienetan pilotaleku bat dago horretan aritzeko, eta lehiaketak etengabe egiten dira. Oso interesgarriak dira ikusteko eta, ausartzen bazara, baita parte hartzeko ere.



## Landa-kirola

*i*

“Herri kirol” direlakoak landa-munduan egiten ziren lanetatik datoz, horregatik “landa-kirol” ere esaten zaie. Hona hemen modalitate ezagunenak: **aizkolariak** (enborrak mozten dituzte), **harrijasotzaileak** (harriak altxatzen dituzte), **segalariak** (segaz ebakitzen dute) eta **sokatira** (soka-jokoa).



## Folklore eta nortasuna

Folkloreak eta euskal jatorriko musika-instrumentuek definitzen dute nortasuna, hala nola **txistuak**, **albokak**, **dultzainak**, **txirulak** edo **trikitixak** (akordeoi diatonikoak). Antzinako perkusio-instrumentu bat oso deigarria da: **txalaparta**. Erritmoak konbinazioan sortzean datza, makilez nagusiki zurezko tabloiak kolpekatuz.

Kontsultatu kultura-agenda.



## Azokak eta merkatuak

*i*

Urte osoan zehar, Bizkaiko herrietan azokak eta merkatuak egiten dira. Egokitu zure egonaldia horietakoren batekin bat etor dadin eta murgildu nortasuna barra-barra duen egiazko jai-giro batean. Esaten dutenez, ez da herririk ezagutzen bertako merkatuak ezagutzen ez badira.



## Barrualdeko produktuak

Idiazabal edo ardi karrantzarraren JDa duten gaztek, Gorbeia eztiak, Bizkaiko txakolinak, Kantauriko kontserbek, Zallako tipula gorriek, Gernikako piperrek eta indabek eta gozoek (hala nola Markinako kokoteak, Gernikako ori-baltzek, Urduñako mantekadek, karolinek edo malba-gozokiek) gustu guztietarako zerrenda amaigabea osatzen dute.



## Pintxoak

*i*

Miniatura-gastronomia ezinbestean dastatu behar duzun espezialitatea da. Probintziako eta hiriburuko tabernetako barra askok sukaldaritza tradizionaleko eta sormen-sukaldaritzako proposamen handientsuak erakusten dituzte, Bizkaiko txakolin bikainaz lagunduta jateko. Zoragarriak.

**BILBAO TURISMO** [www.bilbaoturismo.net](http://www.bilbaoturismo.net)

**BIZKAIA TURISMOA** [www.visitbiscay.eus](http://www.visitbiscay.eus)

**EUSKADI TURISMOA** [www.turismo.euskadi.eus/es](http://www.turismo.euskadi.eus/es)

**NEKATUR/LANDA-OSTATUAK** 943 327 090 · [www.nekatur.net](http://www.nekatur.net)

## TURISMO-BULEGOAK

### BILBO

BILBAO TURISMO 944 795 760

· Plaza Biribila 1, Terminus eraikina

Mazarredo zumarkalea 66

AIREPORTUA 944 031 444

### BIZKAIA

#### BAKIO

946 193 395 · [www.bakio.org](http://www.bakio.org)

#### BALMASEDA - ENKARTUR

94 680 29 76 · [www.visitenkarterri.com](http://www.visitenkarterri.com)

#### BARAKALDO BEC (Bilbao Exhibition Centre)

944 995 821 · [www.barakaldo.org](http://www.barakaldo.org)

#### BERMEO

946 179 154 · [www.bizibermeo.eus](http://www.bizibermeo.eus)

#### DURANGO

946 033 938 · [www.turismodurango.net](http://www.turismodurango.net)

#### ELORRIO

946 820 164 · [www.visitelorrio.com](http://www.visitelorrio.com)

#### GERNIKA-LUMO

946 255 892 · [www.gernika-lumo.net](http://www.gernika-lumo.net)

#### GETXO

944 910 800 · [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

#### GORLIZ

946 774 348 · [www.gorliz.eu](http://www.gorliz.eu)

#### KARRANTZA-HARANA

946 806 928 · [www.karrantza.org](http://www.karrantza.org)

#### LEKEITIO

946 844 017 · [www.lekeitio.org](http://www.lekeitio.org)

#### MENDATA

946 257 204 · [www.mendata.eus](http://www.mendata.eus)

#### MUNDAKA

946 177 201 · [www.mundakaturismo.com](http://www.mundakaturismo.com)

#### ONDARROA

946 831 951 · [www.ondarroatourismo.com](http://www.ondarroatourismo.com)

#### URDUÑA

945 384 384 · [www.ordunaturismo.com](http://www.ordunaturismo.com)

#### OROZKO

946 122 695 · [www.orozkoudala.com](http://www.orozkoudala.com)

#### PLENTZIA

946 774 199 · [www.plentzia.org](http://www.plentzia.org)

#### PORTUGALETE

944 729 314 · [www.portugalete.org](http://www.portugalete.org)

#### SANTURTZI

944 839 494 · [www.turismo.santurtzi.net](http://www.turismo.santurtzi.net)

#### SOPELA

944 065 519 · [www.turismo.sopelaudala.org](http://www.turismo.sopelaudala.org)

#### SOPUERTA

946 504 750 · [www.sopuerta.biz](http://www.sopuerta.biz)

#### TRUCIOS-TURTZIOZ

946 109 604 · [www.turtzioz.org](http://www.turtzioz.org)

## OROKORRA

### LARRIALDIAK 112

### INFORMAZIO OROKORRA 010

(Bilbo udalerrri barruko deietarako)

944 010 010 (Bilbo udalerritik kanpoko deietarako)

### KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA

944 706 426

### HERRITARREN ARRETA

944 241 700

### ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

011

### GALDUTAKO GAUZAK

944 204 981

## GARRAIOA

### AIREPORTUA

Bilbo-Loiu · 913 211 000 (AENA)

944 869 663

[www.aena.es](http://www.aena.es)

### ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA

Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147

[www.brittanyferries.es](http://www.brittanyferries.es)

### TRENAK

Abando Indalecio Prieto geltokia (Renfe)

Plaza Biribila 2 · 912 320 320 · [www.renfe.com](http://www.renfe.com)

Metroaren 3. linea (EUSKOTREN)

Zazpikaleak · 944 333 333

[www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)

La Concordia geltokia; FEVE Bilbo

Baiten kalea 2 · 912 320 320

[www.renfe.com/viajeros/feve](http://www.renfe.com/viajeros/feve)

### AUTOBUSAK

Bilbao Intermodal

Gurtubai 1 · 944 395 077 · [www.bilbaointermodal.eus](http://www.bilbaointermodal.eus)

Bilbobus (udal-autobusak)

94 685 50 00 · 944 790 981

[www.bilbao.eus/bilbobus](http://www.bilbao.eus/bilbobus)

Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)

946 125 555 · [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)

### BILBOKO METROA

946 855 000 · [www.metrobilbao.eus](http://www.metrobilbao.eus)

### TRANBIA

944 333 333 · [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)

### TAXIAK

Radio Taxi Bilbao

944 448 888 · [www.taxibilbao.com](http://www.taxibilbao.com)

Tele Taxi

944 102 121 · [www.teletaxibilbao.com](http://www.teletaxibilbao.com)

Radio Taxi Nervión

944 269 026 · [www.radiotaxinervion.com](http://www.radiotaxinervion.com)

### BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA

Bilbaobizi

946 564 905

## BILBOKO MUSEOAK

### GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

### ARTE EDERREN MUSEOA

[www.museobilbao.com](http://www.museobilbao.com)

### ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA

[www.eleizmuseoa.com](http://www.eleizmuseoa.com)

### ITSASMUSEUM BILBAO

[www.itsasmuseum.eus](http://www.itsasmuseum.eus)

### ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA

[www.museodepasosbilbao.com](http://www.museodepasosbilbao.com)

### BILBOKO ZEZENKETA MUSEOA

[www.plazatorosbilbao.com](http://www.plazatorosbilbao.com)

### BILBOKO EUSKAL MUSEOA

[www.euskalmuseoa.eus](http://www.euskalmuseoa.eus)

### BERREGINEN MUSEOA

[www.bilbokoberreginenmuseoa.eus](http://www.bilbokoberreginenmuseoa.eus)

### ATHLETIC CLUB MUSEOA

[www.athletic-club.eus](http://www.athletic-club.eus)

### EUSKARAREN ETXEA

[www.azkuefundazioa.eus](http://www.azkuefundazioa.eus)

### ARKEOLOGIA MUSEOA

[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arkeologimuseoa](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arkeologimuseoa)

## NATURAGUNEAK

### URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA

944 650 822 · [www.turismourdaibai.com](http://www.turismourdaibai.com)

946 870 402 (Ihobe) · [www.ekoetxea.eus](http://www.ekoetxea.eus)

### GORBEIAKO NATURA-PARKEA

Areatzako Parketxeko Interpretazio Zentroa

946 739 279

[www.areatza.net](http://www.areatza.net)

[www.gorbeiaeskadi.com](http://www.gorbeiaeskadi.com)

### URKIOLAKO NATURA-PARKEA

946 814 155 · [www.urkiola.net](http://www.urkiola.net)

### ARMAÑÓNGO NATURA-PARKEA

946 806 257 688 884 330

[www.visitenkarterri.com](http://www.visitenkarterri.com)

## BIZKAIKO MUSEOAK

### KOSTALDEAN

#### ARRANTZALEEN MUSEOA Bermeo

[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arrantzaleenmuseoa](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arrantzaleenmuseoa)

#### ITSASMUSEUM BILBAO Bilbo

[www.itsasmuseum.eus](http://www.itsasmuseum.eus)

#### BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA Plentzia

[www.museoplentzia.org](http://www.museoplentzia.org)

#### RIALIA INDUSTRIA-MUSEOA Portugalete

[www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA](http://www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA)

#### SANTURTZIKO INTERPRETAZIO ZENTROA

ITSASOA / AGURTZA ARRANTZA-ONTZIA Santurtzi

[www.turismo.santurtzi.net](http://www.turismo.santurtzi.net)

#### BIZKAIA ZUBIA Areeta (Getxo) /Portugalete

[www.puente-colgante.com](http://www.puente-colgante.com)

#### LEKEITIOKO ITSAS ONDARE ZENTROA

[www.faro-lekeitio.org](http://www.faro-lekeitio.org)

#### TXAKOLINGUEA Bakio

[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea)

#### URDAIBAI BIRD CENTER

[www.birdcenter.org](http://www.birdcenter.org)

#### EKOETXEA URDAIBAI

[www.ekoetxea.eus](http://www.ekoetxea.eus)

### BARRUALDEAN

#### SIMÓN BOLÍVAR MUSEOA Ziortza-Bolibar

[www.simonbolivarmuseoa.com](http://www.simonbolivarmuseoa.com)

#### DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

[www.turismodurango.net](http://www.turismodurango.net)

#### ENKARTERRIETAKO MUSEOA Sopuerta

[www.enkarterrimuseoa.eus](http://www.enkarterrimuseoa.eus)

#### EL POBAL BURDINOLA Sopuerta

[www.visitenkarterri.com](http://www.visitenkarterri.com)

#### EUSKAL HERRIA MUSEOA Gernika-Lumo

[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/euskalherriamuseoa](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/euskalherriamuseoa)

#### GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDAZIOA

Gernika-Lumo · [www.museodelapaz.org](http://www.museodelapaz.org)

#### GERNIKAKO BATZARRETXEA

Gernika-Lumo · [www.gernika-lumo.net](http://www.gernika-lumo.net)

#### MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN

#### HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA

“JOSÉ LUIS GOTI” Leioa

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

#### OROZKOKO MUSEOA Orozko

[www.orozkomuseoa.eus](http://www.orozkomuseoa.eus)

#### EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA

Gallarta · [www.meatzaldea.eus](http://www.meatzaldea.eus)

#### BALMASEDAKO HISTORIAREN MUSEOA

Balmaseda · [www.visitenkarterri.com](http://www.visitenkarterri.com)

#### BOINAS LA ENCARTADA MUSEOA Balmaseda

[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/laencartada](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/laencartada)

#### VALENTIN BERRIOTXOAKO MUSEOA Elorrio

[www.web.bizkaia.eus/es/-/balendin-berriotxo-museoa](http://www.web.bizkaia.eus/es/-/balendin-berriotxo-museoa)

#### LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN

#### ETA AUTO KLASIKOEN MUSEOA Galdames

[www.torreloizaga.com](http://www.torreloizaga.com)

#### BURDIN HESIAREN

#### INTERPRETAZIO ZENTROA Berango

[www.berango.net](http://www.berango.net)